

irunero

167. zenbakia. 2009ko otsaila



Udal aurrekontuak 2009

San Juan-Etxeandiako lanak uztailean hasiko dira



Joseba Aurkenerena
idazlea:
"Euskara eta kultura
mitologiaren bidez
erakargarri
egin nahi ditut".



Pauline Ado
hendaiarra:
Gazte mailako
munduko
surflaririk
onena.

eragin eta aldatu



Dani Maeztu



Aintzane Ezenarro



Mikel Basabe

bozkatu



aralar

◀ ezkerreko **alternatiba** abertzalea

www.aralar.net

Laguntzaileak



Aurkibidea

4.- Lapikoan:

- "Bidasoatik" aldizkari berriak lehen zenbakia plazaratu du.
- Sagardotegi sasoia zabalik Ola Sagardotegian.

8.- Aurrez aurre:

- Joseba Aurkenerena euskal idazlea.

10.- Kirolak:

- Pauline Ado 17 urteko surflari hendaiarra, Australian munduko txapeldun.

13.- Lapikoan:

- Euskararen hilabetea abian da.
- Santiago kaleko aztarna erromatarrak bisita daitezke.
- Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo ospetsuek badute tokia eskualdeko telebistan.

15.- Gai nagusia:

- Irungo Udal Aurrekontuak onartu dira.

19.- Bi hitzetan. Berri laburrak.

22.- Kuttun gabinete psikopedagogikoaren aholkuak.

24.- Eleak iruten. Iruzkina.

25.- Lerroz lerro. Kirmen Uribe:

Bilbao-New York-Bilbao.

26.- Kultur agenda

28.- Gazte Informazio Bulegoko berriak.

irunero

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN.
Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77

irunero@infotxingudi.com

Argitaratzailea: TB S.L.

Koordinazioa eta

maketazioa: Ana Grijalba.

Kolaboratzaileak:

Mikel Asurmendi

Kirolak: Ainhoa Furundarena.

Zuzentzailea:

Xabier Kerexeta.

Inprimategia: Antza

Tirada: 3.500

Lege gordailua: SS-230-94

ISSN: 1134-0606

OLAIZOLA

Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN
TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85
Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net
API 316

Salmenta
Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza

***Bidasoatik* aldizkari berria, kultur iturria**

Bidasoatik aldizkariaren lehenengo zenbakia aurkeztu dute

XIX. mendean *Bidasoa* aldizkaria jaio zen, *Bidasoa* arroako gaiak jorratzen zituenena. XX. mende bukaeran izena aldatu eta *Bidasoan* jarri zitzaion. XXI. mendean -2007an-, ordea, kaleratzeari utzi zitzaion. Berriki, kulturaren alorrean lanean diharduen lagun talde batek horrenbeste urtetan gure bailarako erretratu etnografikoa izan zenaren lekukoa hartu eta berriro ekin dio plazaratzeari. Hori mandinga!



Bidasoatik aldizkariaren lehenengo zenbakia salgai dago 3 eurotan.

Kultura hitzaren etimologia lurrarekin lotua izaki, esanahia gure inguruaren ezagutza eta horrekiko harremana izan liteke. XIX. mendean Bidasoa aldizkaria sortu zenetik kaleratu diren ehunka zenbakiak, kulturaren definizio horren zantzuari jarraiki, gure bai-lararen historiaren eta bere erretratu etnografikoaren testigantza dira.

Betidanik tokiko argitalpen ugari eman dituen gure hiri honetan, *Bidasoa* erreferente bilakatu zen, hainbat goi mailako kolaboratzailearen lanek zeresan handia izan zutela, tartean Luis Rodriguez Gal *Luis de Uranzu* goitizenez ezaguna zenarenak.

Gure bizitzaren isla

Urte berriarekin batera *Bidasoatik* heldu zaigu, kulturaren lanean diharduten pertsona talde baten eskutik, horien artean Luis de Uranzu Kultur Taldeko kide batzuk direla. Koordinazio lanetan Ana Galdos eta Fernando Garcia aritu dira eta make-tazioa Mertxe Tranchek egin du. Halaber, aurkezpen ekitaldian argitalpenaren beste hiru bultzatzailek parte hartu zuten: Jose Monje Irungo artxi-bozainak, Jaime Rodriguez Salisek eta Iñigo Imazek. “Ez dugu hutsik utzi nahi hiru mendetan zehar gure eskualdean egon den espazio bat”, azaldu zuen LUKTko presidente Jaime Rodriguez Salisek. “Tradizioari helduz -dio editorialak- herriaren eta herriarentzat aldizkari bat egitea dugu xede”. “Gure bizitza islatu nahi duen zerbait da”.

Aldizkariaren sortzaileek “argitalpen apal hau literatur tailer bat izateaz gain gure historia txikiaren lekuko izatea” nahi lukete, “maiz historia handia baino interesgarriagoa eta hezigarriagoa den hori”.

Kalitatezko irakurgaiak

Batez ere Irun eta Hondarribiko gaiak ekartzen ditu, baina Baztangoak eta Hendaiakoak ere jorratzen dira. Lehenengo zenbakiaren azalak Xabier Arribas artistaren Santiago kaleko argazki eder bat dakar.

Aurreneko artikulua Abdon Francesek idatzia da, laster batean eraitsiko duten Txenperene baserriari buruz-



Ezkerretik hasita, Jaime Rodriguez, Fernando Garcia, Ana Galdos, Iñigo Imaz eta Jose Monje. Behean, *Zalacain el Aventurero* pelikuaren kartela.

koa. Hurrengo orrialdean Manterolak garai bateko La Palmeraren ekonomatoa gogora ekartzen du. Gurutz Albisu 1929an Irunen grabatu zuten *Zalacain el Aventurero* pelikulaz mintzo da, baita dokumentu paregabe honen desagerpena deitoratu ere.

Ana Galdosek, *Paisaje de Meaka, memoria del pasado* izenburuko idazlanean, Meakako ondareari helduz, irundarren antzinako jarduera ekonomikoak aztertu ditu.

Sagrario Arrizabalaga historialariak Irunek elikagaien kalitatearen kontrolarekin izan duen lotura du hizpide.

Bidasoako Alardeen arrasto koreografikoen atzetik abiatu da Xabier Kerexeta eta, ondorioz, Asteasuko Korpus Jaia argigarri gisa ekartzen du aldizkarira. Jarraian, Maria Josefa Setienek *Seroras de Euskalerra* gaiari buruz idatzi du eta Maria Jose Noainek Tanzaniak eta Bidasoak itsasoarekin tradizionalki izan duten harremana landu du.

II. Errepublika eta langabeziaren ara-



zoaz idatzi du Lourdes Odriozolak; Jose Monjek, berriz, Irun eta Musika Banden gaia aukeratu du. Halaber, aldizkariak iritzi artikulua pertsonalak dakartza: Aitziber Lekuonarena, Jon Etxanizena, Pepito Echevestez eta Eneko Romoz *Azkenportuk* idatzitakoa, Guadalupe Serranoren tranbiaren inguruko oroitzapenak eta Jose Antonio Santano alkateak trenbidearen eremuaren antolaketa berriaz idatzitakoa.

Urtean lau zenbaki plazaratzeko asmoz sortu da argitalpena. 300 aleko tirada du, eta salneurria, 3 eurokoa.



Irungo sagardo berria prest dugu txotxetik edateko. Urtero legez, Meakako OLAN sasoiari hasiera emateko ekitaldi handia antolatu zuen bertako nagusi Iñaki Bengoetxeak. Urtarrilaren 25ean burutu zen jaialdia, Iñaxio Errandonea pilotaria omendua izan zela. Berako kirolaria txotxetik edaten lehena izan bazen ere haren ondoren bertara bazkaltzera bildu ziren 200 lagunek ederki asko gozatu zuten sagardo berria dastatuz.

Txotx berri on!

Udazken aldean Iñaki Bengoetxeak etxeko sagastien fruituak bildu eta matxakan sartu zituen patsa egiteko. Handik egun gutxitara zizarra -lehen zukua, alkohol gutxikoa- eskaini zien Sagarraren Eguna ospatzera Olara

joan zirenei. Urtarrilerako, upeletan sartutako zukuaren hartziduraz, sagardoa lortzen da. Hamaikagarren urtez, Irungo sagardotegi bakarrean bereberezko dugun edariari ongi etorria egin zitzaion. Aurtengoan, Iñaki

Bengoetxeak txo-txetik edaten lehena izateko ohorea Iñaxio Errandoneari eskaini zion. “Gehienetan kirolaria aukeratzen dut. Inaxio ezaguna dut eta gustuko pilotaria, gainera”, azaldu digu Olako nagusiak.



Inaxio Errandonea pilotariari Enekoitz Urtxegik agurra dantzatu zionean. Eskuinean, bi txalapartariak.



Meaka auzoko Enekoitz Urtxegik agurra dantzatu zion omenduari, inguruan 200 lagun inguru zituela. Ekitaldian zehar bertaratuek txalaparta entzuterik izan zuten, baita bertso-saio bat ere, Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze lehen mailako bertsolariek eskainia.

Iñaki Bengoetxeak neurri errealean landutako zurezko botila, sagarra eta edalontzia eman zion Berako pilotariari, oroigarri gisa.

Azkenik, sasoi hasierako jaialdia amaitzeko, 200 bazkaltiarrek bapojan eta txotxetik edan zuten.

100.000 litro sagardo

Aurtengo uztak sagar asko eman dituela adierazi digu Iñakik. "Iaz 70-80.000 litro egin nituen, aurtan, berriz, 100.000. Kanpora 100.000 kilo sagar bidali ditut eta halere, soberan izan dut".


Datozen hilabeteotan zehar Olan das-tatuko den sagardoa freskoa, leun samarra eta edateko erraza izango dela adierazi du Irungo sagardogileak.

Kalitatezko sagardoa helburu

Iñaki Bengoetxea beste 21 sagardogile gipuzkoarrekin batera kalitatezko sagardoaren alde lanean dihardu. "Gure produktua defendatu nahi dugu. Horretarako bidea bertako

sagarrekin egitea, jatorrizko sagardoa egitea, alegia". Produktuaren *trazabilitatea* delakoan murgildurik daude, hots, produktua sorreratik (sagarretik) merkaturatzeraino (sagardoraino) identifikatu ahal izateko ekintza multzoan. Trazabilitateari esker ekoizleek produktua merkatu zehatzetan eta errentagarriagoetan sal dezakete. 2020. urterako espero dute xede hori %100ean bete ahal izatea.

Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolariak.



Sagarretik... sagardoa DVDa salgai

Iñaki Bengoetxeak iaz argitaratutako *Sagarretik... sagardoa* izeneko DVDa aurtan ere salgai da. Bertan, hazitik hasi eta sagardoa lortu arte sagarraren prozesu guztia azaltzen du. Dokumentuak balio etnografiko garrantzizkoa du, galteko bidean dauden lantzeko modu eta teknika tradizionalak jasotzen baititu. Bi DVDtan banaturiko lana da, guztira 3 orduko grabaketa.

Joseba Aurkenerena, irakaslea eta idazlea.

“Euskara eta kultura mitologiaren bidez erakargarri egin nahi ditut”



Historian lizentziatua, Euskara eta Euskal Hizkuntza irakasle dago Txingudi Ikastolan aspaldiko partez. Historia eta euskara uztartuz idazle emankorra gorpuztu zen. Hamalau liburu argitaratu ditu, azken biak berrikitan: *Hendaiako tren geltokian* eta *Jaizkibelazpi* ipuin sortak. “Euskararekiko eta Euskal Herriarekiko maitasunak eta aurrera egin nahiak bultzatzen nau idaztera”.

- Zer esan nahi du “aurrera egin nahiak”?

Ni 1956an jaio nintzen. Gaur egungo gazteek ez dakizkitez guk garai latz haietan pasatutakoak: ezin genuen hitz bat ere euskaraz esan, zigorra zekarrelako. Gaztetan sentitu genuen hutsune hori –euskararena– ez dugu gure seme-alabek sentitzea nahi.

- Zure ikasleak gaztetxoak dira. Konturatzen al dira?

Euskara badute, ez dute erabiltzen, ordea. Guk uste genuen irakastearekin nahikoa zela, baina belaunaldi-jauzia behar da gauzak aldatzeko. Maitasunez bultzatu behar da beraiena dela senti dezaten. Hori ez da aski: hizkuntzarekiko eta kulturarekiko erakargarritasuna nabaritu behar dute.

“Narrazioan euskara batua
erabili dut, eta elkarrizketetan,
euskalkiak”

Gazteei mitologia eta historiaren alde bitxiak erakargarri gertatzen zaizkienez, ildo horretatik jo dut literaturan. Nire liburuen ezinbesteko osagaiak hauek dira: historia, mitologia eta umorea.

- Osagai horietaz gain, iaz plazaratutako *Hendaiako tren geltokian* izenburukoak badu Irunekin lotura...

Han eta hemen gertatutako istorio errealak dira, guztiak ere umore puntu bat dutela. Batzuk Irunen gertatutako pasadizoak dira. Horietako baten testuinguru historikoa gerra zibilaren ondorengo urteak dira. Batek erromeriara joaten ziren gazteek baserriar faxista bati egindako bihurrikeriak ditu kontakizun. Beste bat Blaia kanposantuan girotua dago, psikofonia saio bat egitera joan eta hilen sakelako telefonoak entzun zituztenen istorioa da.


Hirugarrenak Hitler du protagonista. Hendaiako tren geltokian Francorekin bildu baino lehen Bixintxo elizako mezu koaternarioa ikustera joan zen, non gizakiaren azken aroa noiz amaituko den agertzen omen baita. Leiendak dio Hitlerrek Fulcanelli alkimista handiari galdetu ziola: *Noiz arte iraungo du III Reich-ak?* Hark erantzun: *Zuk uste baino gutxiago*. Hitler: *Eta Francorekin elkartzen banaiz?* Fulcanelli: *Ipotx degeneratu horrekin are gutxiago*.

- *Jaizkibelazpi* fresko-fresko dugu dagoeneko liburu-dendetan. Zein izan da oraingoan mitologia eta historia uztartzearen emaitza?

Ene ustez euskaltasuna zabaltzeko nor bere herritik abiatu behar du. Ni lezotarra naiz. Jaizkibelgo gerizpean kokatutako 25 ipuin idatzi ditut. Mota guztietako pertsonaiak agertzen dira: jentilak, sorginak, kontrabandistak, artzainak, karlistak eta liberalak, bale-arrantzaleak, gaur egungo lezotarrak eta etortzearen daudenak -etorkizunean girotutako bi ipuin daudelako-. Benetako gertaera eta pertsonaia historikoetatik abiatuz fikziozko narrazioa gauzatzen da. Honetan ere umoreak badu bere ukitua eta aurreko lanetan bezala bilatzen dudana magia euskal kulturari bizi-grinez hurbiltzea da, alaitasuna.

- Euskalkiak erabiltzen dituzu. Horrek lana aberasten du, baina gazteei zailagoa gertatzen zaie.

Narrazioa euskara batuan dago, baina euskalkietatik hartutako hitzez aberastua. Elkarrizketetan euskalkiak erabili ditut; oraingoan, *Jaizkibelazpin*, ipar goinafarrera, Irungo ipuinetan, hemengo euskara eta, esate baterako, Zuberoan gertatzen direnak, bada, zuberoarez. Gazteengan pentsatu



dut, horregatik irakurketa errazteko orri oinetan hitz horien inguruko oharrak idatzi ditut.

- Marrazkiz hornitua dago. Zer ezaugarri dute?

Bai, Lander Zurutuzak marraztuak dira. Oso gustuko ditut marrazkigile honen lanak, kutsu klasiko misteriozua dute-lako. Horrexegatik eskatu nion ipuinak ilustratzea, antzinako irudiak ematen baitute.

Argitaratutako beste lan batzuk

- Ipuin-liburuak: *Lezoko ipuin inoizkoak*, *Harribeltzetako ipuinak*, *Makurmendiren magalean*, *Harribeltzeta nire gogoan*, *Hodei ororen azpian*, *Sorgin mainguak dabiltz*, *Hendaiako tren geltokian*, *Jaizkibelazpi*, *Axularren itzala* (7 euskal herrietan girotutako ipuinak, laster plazaratuko dena).

- *Euskal sinesmen zaharrak* saiakera

- Bi hiztegi: *Irainka*. *Euskal irainen bilduma* eta *Haur hizkera*.

- Bi kronika-liburu iparraldeari buruz: *Iparaldeko kronikak* eta *Iparaldean gaindi*. Euskal gaien inguruko liburu bat: *Euskaldunon mundua* hizpide.

Pauline Ado hendaiarra, munduko surf txapeldun berria

2006. urtean Pauline Adok 18 urtez azpiko Junior mailako Munduko Surf Lehiaketa irabazi zuen. Duela aste gutxi beste jauzi handi bat eman du, Sidneyn jokatu den 20 urtez azpikoan garaitzearekin batera.

Lorpena galanta da, kontuan hartuta 17 urte besterik ez dituen hendaiar bat orain arte australiarrak erregina bakarrak izandako kirol batean koroatu dela.



Arg: Masurel.

- Zer nolako esperientzia bizi izan duzu Australiako lehiaketan?

Sinesgaitza izan da, izan ere, orain arteko garaile guztiak australiarrak izan dira eta. Bai, irabazi izana ezustekoa izan da australiarra ez naizelako, nahiz eta faboritoen artean estatubatuarrak eta hawaiarrak egon.

- Garaipena eskuratzeko aukerak zenituelakoan zinen?

Bai, hala uste nuen; baina, badakizu, lehiaketetan auskalo zer gertatzen den azkenean! Lehenengo kanporaketa iraba-

zitakoan nire buruarekin konfiantza hartu nuen eta hurrengo irabazi nuen. Hawaiar bat eta biok finalera iritsi ginen. Zera pentsatu nuen: garaipena lortu behar dut, bigarren postua ez baita hobereena!

- Non entrenatzen duzu?

Hendaian, Biarritzen, Angelun, Hossegorren... olatuen arabera aukeraten dut tokia. European zailagoa da entrenatzea, hotzarengatik. Duela bi urte Australiara joan nintzen hila-bete pare batez entrenatzera.



1

Arg: Kristen Pelou.



2

Arg: Robertson.



3

Arg: Robertson.

1.- Pauline Adoren erretratu, Miarritzen pasa den udan egindakoa.

2.- Pauline, Gazte Mailako ASP Munduko Surf Txapelketa irabazi zuenean, podiumean saria jasotzen.

3.- Surfleri hendaiarra, Australiako Narrabeen hondartzan jokatu zen txapelketako finalean.

Beste orrialdean: Surf saio bat Hawaiin 2008an.

- Zein da zure gustuko tokia?
Indonesia.

- Zein izango da hurrengo urratsa surfean?
Zirkuitu profesionalean jarraitu nahi dut, eta lehenengo mailarako sailkatu. WS maila izena du: ea lortzen dudan.

- Zer eskatzen zaizu sailkatzeko?
Lehenengo seien artean sailkatzea.

- Maiz bidaiatu behar baduzu, zaila izango da ikasketekin jarraitzea.
Bai, horregatik urrutiko sistemaren bidez ikasten dut. Surf nire jarduera nagusia izatea erabaki nahi dut, ez dudalako bi gauzetan gaizki egin nahi.

- Noiz hasi zinen surfean?
Zortzi urte nituenean lagunekin hasi nintzen. Entrenamenduei Hendaiako Surf Klubekoekin ekin nien, aurrerago Frantziako Federazioarekin eta babesle dudan

Rip Curl-ekin.

- Zirkuitu profesionaleko gipuzkoar ezagunik bai?
Bai, harremana dugu europarrok nolabaiteko talde bat osatzen dugulako. Lagunekin surfeatzera joatea atsegin dut elkarrekin motibatzen garelako.

- Zeintzuk dituzu surfalaririk gustukoena?
Stephanie Gilmore australiarra emakumezkoetan eta Joel Parkinson mutiletan.

- Lehiaketa irabazi zenuenetik ezagunagoa zarela nabaritu duzu?
Surflariak ezagutzen naute, baina orain hurrek sinadura eskatzen didate! Hendaiako Bixintxoetan omenaldi bat egin zidaten Sidneyko lehiaketan lortutako garaipena ospatzeko.

- Epe laburrerako zein plan duzu?
Otsailean Australiako Gold Coast-era abiatuko naiz hilabete batez entrenatzera.

Euskararen Hilabetea abian da

Irungo Udalak kalitate handiko eskaintza eszenikoa prestatu du haur eta gazteen artean euskara sustatzeko.

Aurtengo Euskararen Hilabetearen edizioa urtarrilaren 20an abiatu zen eta martxoaren 18an amaituko da. Helburuari heltzeko asmoz, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako egitaraua prestatu du Udalak, euskara sustatu aldera.

Euskara Ordezkarria Fernando San Martinen esanetan “programa hau sortu zen haurren euskararekiko interesa eta jarrera areagotzeko eta hobetzeko. Izan ere, zenbat eta aldekoagoa izan jarrera orduan eta handiagoa da euskararen erabilera gure herrian”.

Guztira 9.000 haur eta gaztetxok euskarazko antzerki ekoizpenik hoberena ikusteko aukera izango dute Amaia Kultur Zentroan. Eskaintza talde ezagunek osatzen dute, Dar-Dar, Txalo, Panta Rhei, Malaspulgas, Gorakada eta Caleidoscopio taldeek, hain zuzen ere.

Iruneroren zenbaki berezia

Ikuskizunez gain, ikasleek ikastetxean euskararekin loturiko gaiak landuko dituzte eta lan horien aukeraketa bat Irunero aldizkariaren zenbaki berezi

batean argitara emango dira. Horretarako ikastetxeek ziklo bakoitzeko lan bana aurkeztuko dute, haur hezkuntzatik hasi eta DBHko azker mailara arte.

Aldizkaria *Euskararen Hilabetea* egitarauan esku hartu duten ikasle guztiei banatuko zaie.

Programak 55.000 euro inguruko aurrekontua dauka.



Amaiera ekitaldia

Non: Zabaltza plazan

Noiz: Martxoak 18

Ordua: 17:30etik aurrera.

Ekintzak:

-Haur parkea

-*Zirika zirkus* taldeak *Ilargian* ikuskizuna eskainiko du.

Ilargian ikuskizuna 18:30ean hasiko da; bertan, plazara hurbiltzen den orok aukera izango du dantzatzeko eta jolasteko, Loretsu, Traketsu eta Bolintxe Zalapartaren eskutik. Lan honetan zirkoa eta antzerkia uztartzen dira, zeren eta, besteak beste, akrobaziak, malabareak, musika, globoflexia eta jokoak izango baitira.

Santiago kaleko aztarnategi arkeologikoa bisitatu ahalko da

Santiago eta Bidasoa kaleen artean dagoen aztarnategi arkeologikoa nahi duen hiritar orok bertatik bertara ezagutzea badauka Oiasso Museoak antolatu dituen bisitei esker.

Orubean gaurdaino aurkikuntza oso garrantzitsuak egin dituzte. Hain zehatz, portuko jarduerari loturiko biltegi multzo bat azaleratu dute. Horien artean bada handiago bat, botere publikoek kudeatzen zituztenen ezaugarriak dituena. Hortaz, Oiasso hiriak portu-agintaritzaz izango zuelakoan daude arkeologoak.

Halaber, aztarnategian keramika sorta garrantzizkoak bildu dituzte, bai baxera zatiak bai anforenak, ehundegi-pisuak eta iruteko fusaioiak. Siderurgia-jardueraren aztarnak, animalien gorpuzkinak eta adreiluak



Indusketa lanen zuzendari Pia Alkain Irungo alkatearekin.

ere topatu dituzte, besteak beste.

Irungo alkateak arkeologoak zoriondu ditu eta Oiassoren garrantzia

baieztatzen duten lekukoak aurkitu izana hiriarentzat harro sentitzeko modukoa dela adierazi duen.

irunero interneten

www.infotxingudi.com

Gipuzkoa Telebista *Txirri, Mirri eta Txiribiton* pailazo ospetsuen saioak ematen hasi da

Programen ordutegia:
astelehenetik ostiralera
17:30etik 19:30era eta
larunbat eta igandeetan
goizeko 7:30etik 9:30era.

Pailazo hirukote ospetsua 1972. urtean sortu zen Donostian. Dagoeneko 37 urte eman ditu bai telebistan bai antzokietan abentura dibertigarri haur euskaldunei barre eginarazten. *Txirri, Mirri eta Txiribiton*ek ez dute etenik eta ez dute izanen! Otsailetik aurrera Bidasoaldeko haurrek modarik ezagutzen ez duen umore sanoaz gozatu ahal izango dute Gipuzkoa Telebistari esker. Eskualdeko telebistak haurrei zuzendutako euskarazko programazioaren aldeko apustu handia egin du, izan ere, egunero hedatuko baitira saioak. *Txirri, Mirri eta Txiribiton*en ikuskizunak atelehenetik ostiralera 17:30etik 19:30era emango dira, eta asteburuetan, 7:30etik 9:30era.

Kantu ezagunak, piurak, txantxak, pasadizo harrigarriak... betidaniko umorea etxeko txikien gozagarri!



Bidasoaldeko haurrek pailazoen abentura arrakastasuez gozatu dute egunero.



Txirri, Mirri eta Txiribiton hirukoteak hainbat disko eta ikuskizun argitaratu ditu.



GIPUZKOA TELEBISTAK
komertzialak behar ditu.

CV-a honako helbidera bidali:

produccion@gipuzkoatb.com


Irungo udal aurrekontua 80.688.665 eurokoa da

Joan den urtarrilaren 14an Irungo Udalaren osoko bilkurak 2009ko aurrekontuak onartu zituen. Aurrekontu proiektua aurrera ateratzea abenduan egin ohi bada ere, aurten atzeratu egin da gobernuaren eta oposizioaren adostasun eza tartean. Urtarrilaren 14ko bilkura haren ingurubarrak bereziak izan zirelako, gobernuaren (PSE-EE) 12 botoekin soilik (guztira 25 zinegotzi dira) proposamena onartua izan zen. Ezker abertzaleko Victoria Mendoza zinegotzia amaren heriotzarengatik atzerrian zegoenez, oposizioko 12 kide besterik ez ziren bertaratu. Berdinketa hausteko alkatuek ez zuen kalitatezko botoa erabili behar izan EAE-ANVko 2 hautetsiak abstenitu ziren eta. Politikaren bitxikeriak!



Inbertsioetarako diru partidarik handiena San Juan- Exeandiako hirigintza proiektua abian jartzeko izango da.

GASTUEN AURREKONTUA: 80.688.665 euro



1.- Pertsonalaren gastuak: Langileak. **2.- Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan:** Materiala, kanpo-ko kontratazioak... **3.- Finantza gastuak.** **4.- Transferentzia arruntak:** Diru-laguntzak... **5.- Inbertsio errealak:** Hirigintza-proiektuak... **6.- Kapital-transferentziak:** Udal erakunde publikoei ematen zaiena, haien aurrekontuen osagarri gisa. **7.- Finantza pasiboa.**

Aurten Irungo Udalaren aurrekontu kontsolidatua 90,4 milio eurokoa da. Kopuru horren baitan erakunde autonomoena dago: Kirol Patronatua, Bidasoa Bizirik, Musika Udal Fundazioa, Etxebizitza Publikoaren Elkarte (Irunvi), Ficoba eta Hileta Udal Zerbitzuak. Elkarte publiko horien aurrekontuak kenduta, Udalak 80.688.665 euro gastatuko ditu, 2008an baino %6,5 gutxiago. Kopuru honi EAEko hautetsiekin hitzartutako bi partidak gehitu behar zaizkio, guztira 120.000 euro.

Gastu nagusiak

Ogasun zinegotzi Felix Asensioren esanetan “austeritatea eta eraginkortasuna” izan dira aurrekontu proiektuaren ildo nagusiak. Hiriko elementuen mantentze lanetarako –kaleen konponketa, lorategiak, garbiketa...– zenbatekoa ez da murriztu “bizi-kalitatea oinarritzat delako”, adierazi zuen ordezkariak. Kultura arlokoari dagokionez, aurten ere kopurua mantendu da –6,8 milioi– ikastetxeen iraurarazpean eta kultur ekitaldietan nagusiki inbertituko dena. Enpleguaren suspertzea –1,6 milioi– eta Gizarte Ongizatea –6,6– pisuzko partidak direla azaldu zuen Asensiok.

Inbertsioak

Inbertsioen kontu-saila nabarmen murriztu da iazkoaren aldean: 24,7 miliotik 16,3ra. Gasturik handiena –3,3– San Juan-Etxeandiako proiektua gauzatzen hasteko izango da. Halaber, Oñaurreko lanak abiaraztea espero da eta Lapitze, Hondarribia eta Beraketa kaleen hiritartzea burutzea (*Ikus hurrengo orrialdeko taula*). Krisiarengatik inbertsioak txikiagoak izango dira; baina,

hain zuzen ere krisiari aurre egiteko Madrilgo gobernutik Irunek jaso dezakeen diru kopuruak galera konpensa lezake, gure hiriarri 10,7 milioi dagozkio eta. Diru hori hiritartze eta mantentze lanetan inbertitzea erabaki zuen Udalak.

Pertsonalaren gastuen gorakada

Pertsonalaren gastuen atala da gehien handitu dena –%6,67– nahiz eta zinegotzien soldatak *izoztu* dituzten eta langileenak KPIa bezainbeste igotzera mugatu.


Zuzenketen dantza

Oposizioko zinegotziek guztira 57 zuzenketa aurkeztu zituzten:

- PP: Aurrekontu-proiektuari osoko zuzenketa eta bi partzial.
 - EAJ-PNV: Osoko zuzenketa eta 32 partzial.
 - EB-Berdeak-Aralar: Osokoa eta 13 partzial.
 - Peio Gaskon, Victoria Mendoza eta Tomas Karrera: Osokoa eta 6 partzial.
- PPk, EAJ-PNVk eta EB-B-Aralarrek bozketa baino lehen zuzenketa partzialak kendu zituzten. EAE-ANVko hautetsiek aurkeztutakoetatik bi onartu ziren:
- Erabiltzen ez diren etxebizitzaren inguruko azterlana: 20.000 euro.
 - Jangela soziala eta aterpetxea: 100.000 euro.



San Migeleko inmigrazioko eraikinean auzo etxea egingo dute.



Hirugurutzetako labeak.

INBERTSIO NAGUSIAK	ZENBA-TEKOA
San Juan Etxeandiako hirigintza plana eta aparkalekua. Lanak uztailean hasiko dira. Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 25.700.000	3.300.000 euro
Hondarribia kalearen hiritartzea. Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 2.400.000	2.000.000
Palmera Monteroko auzo etxea eta aparkalekua. Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 3.000.000	1.000.000
Gain Gainekeo parkea. Lehenengo fasea. Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 1.400.000	1.000.000
Gazteluzaharreko bidea. Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 2.277.400	900.000
Hirugurutzetako labeak. Lehenengo fasea. Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 1.000.000.	800.000
Lapitze kalearen hiritartzea. Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 1.650.000.	800.000
Porcelanas-eko biribilgunea. Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 3.700.00	800.000
Beraketaren hiritartzea	500.000
Ugalde-Kateko kirol-gunea. Zerbitzuen eraikina	400.000
Hegoaldeko saihsbidea. Proiektuaren erredakzioa.	225.000
San Migeleko auzo etxea eta aparkalekua. Proiektuaren erredakzioa.	200.000
Kirol ekipamendua Arbesen.	200.000
Oiasso Museoko termak Zenbait urtetan egingo den gastu osoa: 1.650.000	200.000
Kirol ekipamendua Puianan.	200.000



Oiassoko termak.



Hondarribia kalea.

Azken bitxikeria

Aurrekontuak onartu eta handik 15 egunera Udal Gobernuak urteko lehen kreditu aldaketa aurkeztu zuen. Osoko bilkuran PSE-EEK PPren babesia izan zuen, gainontzekoek ezezkoa eman ziotela. Guztira 542.480 euroko partida onartu zen, oposizioako taldeek aurrekontu-proiektuari egindako zuzenketetako batzuk - 13- jasotzen zituena. Zuzenketa hauek eta beste batzuk PPK, EB-B-Aralarrek eta EAJ-PNV urtarrileran 14ko osoko bilkuran zehar kendu zituzten bozketa baino lehen.



Oposizioaren konfiantza falta

PP

Udal Gobernuan konfiantza falta

Aurrekontu-proiektuak zergatik jaso zuen PPren ezetza azaltzeko, honakoa adierazi zuen alderdiak: *Oso esanguratsua da oposizioko alderdi demokratiko guztiek zuzenketa partzialak kendu izana; horrek frogatzen du konfiantza falta dagoela, hau da, onartzen dena gero ez dela gauzatuko.* PPK gobernari gauzak normaltasunaren ildotik bideratzeko borondatea agertu zion, baina, aldi berean, kritika luzatu zion EAE-ANVko zinegotzi ohiekin zuzenketak hitzartzeagatik: *Hain ideia ezberdineko pertsonak dira ezen bizitzeko eskubidea onartzean ere ez daude ados.*

EB-B-Aralar

Gobernuaren jokaera arraroa da

Udal talde honen aburuz, ulertezina da ezker abertzaleko zinegotzien jokaera, inkoherentea baita osoko zuzenketa aurkeztea eta abstenitzea: *Ez daki-gu PSE-EEren eta EAeko zinegotzi ohien arteko hitzarmenik dagoen, baina jokaera oso arraroa da.* EB-B-Aralarrek oposizio guztiaren udal gobernuaren ganako konfiantza falta nabarmendu zuen. Horren lekuko, zuzenketa gehienak erretiratu zituztela, udal gobernuak betetzen ez dituelako. Hori dela eta, EB-B-Aralarrek gobernari gogoeta egiteko eskatu zion.

EAJ-PNV

EAJk ez du ulertzen ezker abertzaleko zinegotzien jokaera

EAJ-PNV alderdiak aurrekontuen aldeko botoa eman zuen iaz gobernuak zuzenketak onartu zituelako. Aurtan, ordea, ez zuen hitzamenik sinatu nahi izan, *iaz adostutakoa bete ez delako.*

EAJko ordezkariak ez dute ulertzen ezker abertzaleko zinegotzien jokaera: *Osoko zuzenketa bat aurkeztu ondoren eta jarrera aldaketa ez zela partzialengatik onartuta, ez dugu ulertzen zergatik abstenitu diren hiritarren onurako dela adieraziz.*

Ezker abertzalea

Ez gobernuarekin ez oposizioarekin

Osoko bilkuran zehar ezker abertzaleko zinegotziek osoko zuzenketa kentzeko prest agertu ziren baldin eta udal gobernu hiritarren eta oposizioaren partaidetzaz aurrekontu-proiektu berri bat lantzen bazuen. Proposamena, ordea, ez zen aurrera atera. Bide hartatik, hamabinako berdinketa bilatzen zuen ezker abertzaleak: *Alkateak aurrekontu-proiektua bertan behera utz zezan, erantzunkizun politikoari jarraiki; Baina oposizioa ez du hiriak kezkatzen.* Beraz, gobernuarekin eta oposizioarekin adotasunik ezean, abstenzioa zen irtenbide bakarra.

Kemenek eta Eraikik Puska Biltzea egingo dute Inauteri Igandean

Aurten ere Eraiki eta Kemen dantza taldeek antzinako tradizioari eutsiz, Nekazal Inauteria ospatuko dute Puska Biltzea eginez. Inauteri igandean, hilaren 21ean, Kemeneko kideak goizeko 9:30ak aldera hasiko dira eta Olaberria auzoan zehar baserri baserri fandangoa eta arin-arina dantza-tzen ibiliko dira, ordainetan baserriko produktuak jasoz. Kemeneko musikariez gain, bigarren urtez, udal musika eskolako txistu ikasleak lagun izango dituzte. Ibilbidean zehar, bizilagunen abegia nabarmena izan ohi da, txorizo, arraultza, intxaur eta abarrez saskia beteko dutelarik. Taldeko 40 lagunek biltzen dituzten jakiekin bazkari oparoaz gozatzeko aukera izango dute, lagunarteko bazkaloste luzearekin Eraikiko dantzariak San Martzialetik 9:00etan abiatuko dira Bidasoa eta Behobia auzoetan puska biltzen jarduteko.



Kemeneko dantzariak, Puska Biltzea egiten Inauteri Igande batez.




Larreaundiko elektrizitate-azpiestazioa Txenperenean kokatu ahal izateko plana, onartua

Udalaren azken osoko bilkurak Txenpereneko Sektorizazio Plan berria onartu zuen, Larreaunditik elektrizitate-azpiestazioa kendu eta handiago bat eremu honetan kokatzea ahalbidetzeko.

Txenperenean (Lapitze auzoan) guztira 694 etxebizitza berri eraikiko dituzte; horietako 386 babes ofizialekoak, 128 udal etxebizitza tasatuak eta 180 prezio librekoak.

Planak 160.000 m²ko eremua antolatzen du, etxebizitzak egiteaz gain Katea eta Lapitze auzoak lotuko dituen hiritartze proiektua barne.



Txenpereneko eremu berriaren plana.

Mario Simancas eta Moises Alegre irundarrak *La Batalla de los Coros* programaren irabazle

Mario Simancas eta Moises Alegre irundarrak aski famatu bilakatu dira azken boladan Cuatro telebistako *La Batalla de los Coros* programa-lehiaketa irabazi zuen abesbatzeko kide izateagatik. Guztira hogeina kideko bost abesbatzek parte hartu zuen, kantari ezagun baten zuzendaritzapean. Sevilla, Galizia, Madril, Extremadura eta Donostia lehiakide izan ziren eta *aita-ama pontekoak*, Lolita, Soraya, Manu Tenorio, Marta Sanchez eta Mikel Erentxun. Lehiaketa bakarkako eta taldeko norgehiagoketan zetzan, betiere trebatzaile lanetan kantari ospetsuak aritu zirela. Bost ikuskizun handi hedatu ziren telebistaz eta azkenean, ikus-entzuleen erabakiz, Donostiako abesbatza -Mikel Erentxunena- garaitu zen. Bi irundarrentzat esperientzia paregabea izan da eta harro daude gipuzkoarrez osatutako koroak lortu duen arrakastaz.



Mario Simancas eta Moises Alegre irundarrak grabaketa batean.

Minbiziaren Aurkako Elkarteak badu egoitza Irunen

Joan den otsailaren 3az geroztik osatu berri den Minbiziaren Aurkako Bidasoako Batzordeak egoitza badu. Aipatu egunean Irungo alkateak Foru karrikako 4-1goa ezkerrean dagoen etxebizitza uzteko hitzarmena sinatu zuen. Hurrengo urratsa, jendeari ireki baino lehen egoitza konpontzea izango da.

Elkartearen Bidasoako presidente Esther Iglesiasen esanetan, orain boluntarioentzat ikastaroak antolatzea eta bazkide berriak egitea dira helburu behinenetako bi. Epe laburreko jarduerarik aipagarriena, dirua lortzeko martxoaren 14an ospatuko den festa. Informazioa: 943 617083 (Esther) edo 943 640862 (Marian).



Hitzarmenaren sinaketa. AECCKo Gipuzkoako Batzordeko Fernando Pesquera, Jose Antonio Santano eta Esther Iglesias.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK,
ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK,
KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

Irunen ere Agate Deunaren tradizioari eutsiz

Aurten ere abesbatzak atera dira kalera Santa Agedaren bezperan, helduak iluntzean, eskolau-meak goizean, makilak hartu eta ohiko koplak kantatzera.

Bularrak ebaki zizkiotelako esnea eskatzen duten amen patroia den arren, Euskal Herriko gazteen gaua izan ohi zen otsailaren 4koa, gazteak izaten baitziren etxez etxe puska biltzen ibiltzen zirenak, maiz mutilek ohitura zaharra aitzakiatzat hartu eta kanta-tzera abiatzen baitziren gustuko nesken etxeetara, inauterietako giroan betiere.

Orain, ordea, adinak ez du agintzen eta gizonak eta emakumeak, zaharrak eta gazteak, diru edo pusken truke baino gehiago, giroa alaitzera ateratzen dira, batzuk trikitilariak eta guzti.



Larreandi Abesbatza Agate Deunaren koplak kantari.

Eguzkitzaldeko eremuaren antolaketa berria onartu du Udalak

Aldaketaren ardatza Eguzkitzako ikastetxe txikia handitzeko beharra izan da. Irungo Udalak, Eusko Jaurlaritzaren proiektua aprobetxatuz eremu guztia berrantolatuko du. Jaurlaritzak eskola bota eta Haur eta Lehen Hezkuntzako 474 ikasleren-tzako eraikin berria egingo du. Horretarako, Gurutze Gorriaren egoitza eraitziko dute, instalazio berriak Alzukai kaleko babes ofizialeko etxeetan egongo direla; baina eraikina burutu bitartean, lokalak Euskal Herria hiribidean kokatuko dituzte. Bestalde, Larreandiko futbol zelaiak pixka bat mugituko dute, inguruan errepide berria egin ahal izateko


eta hala Euskal Herria hiribidea eta Ama Xantalen kalea lotzeko, Arbesera eta Palmera-Monterora abiatzen diren ibilgailuek Alde Zaharretik igaro behar ez dezaten. Era berean, Planak eliza handitzea aurreikusten du, Ama Miraritakoaren kaleko aldean, eta aldamenen aparkaleku berria moldatzea. Josu Langilea kaleari dagokionez, bi aldeetan aparkatzea izango da.

Azkenik, aurrerago futbol zelaiaren azpian aparkalekua egitea aztertuko da, nahiz eta erabakia Alde Zaharreko behin betiko proiektuen arabera hartuko den.

Dirudi **O**ts

Gabiria kalea, 15 - 179 Katea auzoa - IRUN
Tel 943 63 16 32 Faxe 943 63 16 02

- ✚ SONORIZAZIOA
- ✚ ARGIZTAPENA
- ✚ GRABAZIO-ESTUDIOAK
- ✚ ERREALIZAZIOARAKO PLATOAK
- ✚ BIDEO-ZINEMA-PUBLIZITATEA
- ✚ BIDEO-PROIEKTAGAILUA
- ✚ PANTAILAK



Nire baitan pizten diren bazter miresgarriak... maite ditut maite




Adiskideak, zenbaki batzuk lehenago, aldizkari honetan sexualitatearen inguruko artikuluen segida plazaratzeko asmoa genuela komentatu nuen. Aipaturiko irakurgaiaren ere adierazi izan genuen plazerra dela jokaera erotikoa berpizteko motibagairik handienetakoa. Plazer hutsa berez erakargarria da; hori dela eta, erotikarentzat garrantzitsu izatea, hots, erakargarri suerta daitekeena erotikoa da.

Orain bai, gure egungo bizimoduaren eredia kontsumoan oinarritzen denez, erotikak –hau da **desioak- balio itzela du**. Desio-iturri bilakatu behar zaigu salgai den oro. Berez, desioak berak baino gehiago, beharbada, desioa sortarazteko era berriek dute balio izugarria. Bai nahasmena, ezta? Nola

liteke, desioa baino, desioa sortarazteko amua garrantzitsuagoa izatea? Kontsumoaren beharrean dago kokka, bitxia da benetan.

Bizimodu moderno honetan eragile aktibo izateko, hein handi batean, bizidun arrazionalok



kontsumitzera beharturik gaude. Azoka erraldoi baten barruan biziko bagina bezala irudika dezakegu egungo bizimodua, non erotika –desio- funtsezkoa den. Gizakiaren sexualitatearen ikuspegitik, azoka honetan desioak itxura eta neurri fisiko jakinak dituela adieraztea ez da berria. Esaterako, ez zaigu arrotz egingo 90-60-90 neurrien esanahia. Bizimoduaren azokan jantzi, edabe, tresna edota proposamen kirurgiko anitzak eskaintzen zaizkigu **desio-objektuen iturri ederra bilakatzeko** asmoz. Irudikatu dugun azoka-birtual honetan saltokiek beren erremedio miresgarria agerian ikusgarri dutelarik, **ezinbesteko bezero bihurtu gara gu geu.**

Gorputz ederraren irudi zehatza nolakoa behar duen izan oso azkar ikasi dugu, eta desioaren azokak ia denetik eskaintzen digu irudi honen ahalik eta hurbilen senti gaitzen. Postu, denda, iragarki ezberdinetan azaltzen diren argazkiak begiratu gero, gorputz finak, gazteak, neurri eta ezaugarri berekoak direla ageri da; hortaz, oso antzekoak aurkituko ditugu guztiak. Berriz, gure azoka birtual honetako **kaleetan zehar ari garen pertsonen gorputz eta irudiei so egiten badiegu** gorputz-irudien arteko homogenitate hori ezabatu eta aniztasuna azalduko zaigu, gorputz lodiak, txuriak edo beltzaranak, altuak eta baxuak, haurrak, helduak eta gazteak... hauek guzti hauek kale ezberdinetan zehar paseoan... **aniztasuna eta kontrastea ditugu nagusi.**

Nik beti pentsatu izan dut **aniztasunaren barruan aberastasuna aurkituko** dugula; baina azoka honen denda gehienetan iragarki gisa azaltzen den irudia ez da batere anitza, ez eta malgua ere, aski zorrotza baizik.

Beraz, ezinbesteko galderak ditut buruan, hala nola: zeini egiten dio mesede estereotipoaren itxura estetiko horrek? Gutako inor eroso eta eder sentitzen al da horri esker? Dudak ditut, eta neurri



eta itxura horren inguruan kokatzen ditugun pertsonak ere, beti aldatzeko zerbait dutenez geroz, ez ote duten besterik bilatzen...

Beharbada gure burua gehixeago ezagutu, onartu eta maitatuko bagenu, azoka bestelakoa litza-kete... koloretsuagoa; baina... zer diot? Akaso ez dugu aski maitatzen gure burua? Barkatu, irakurle, nonbait okertu naiz, aski dut begiratzea egunean zehar **zenbat denbora eskaintzen diogun geure burua maitatzeari, ezta?**

Era berean, eta agurtu aurretik, beste galde-erataxoa bat ari zait bueltaka... Inork ba al daki gure herriko eskoletan ageri diren curriculumek eta ikastetxeko proiektuek zenbat ordu eskaintzen dieten haurrei beren gorputza –eta inguruan duten beste haurrena ere- **EZAGUT, ONAR eta MAITA** dezaten? **Zenbat ordu astean, alegia?** Zenbat?... zenbat?...

Hurrengora arte, eta ez ahaztu, **ADISKIDE... IZAN ZAITEZ MAITALE.**

KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOAREN IZENEAN



FISIOTERAPIA eta PILATES TERAPEUTIKOA FISIOTERAPIA y PILATES TERAPÉUTICO

SARA COSSIO PEÓN

-Gihar-tendoietako lesioak.
-Bizkar hezurreko patologiak.
-Masaje terapeutikoak eta erlaxagarriak.

-Lesiones musculares y tendinosas.
-Patologías de columna.
-Masajes terapéuticos y relajantes.

BONOAK AUKERAN

POSIBILIDAD DE BONOS

Arantzateko Jauna kalea, 6 - behe. IRUN.
ALDEZ AURRETIKO ZITA / CITA PREVIA. 663 927 335

“Otsaila firili faraila” dio esaerak. Hilabete kaskarina eta zoroa dugu otsaila. Nik txorien lehen kantuak sentitu ditut dagoeneko. Sentitu al dituzue zuek? Egun epe-lak sentitu ditut, baina, egun hotzak ez dira joan: hotzak eta hormak nozitzen ditugu oraindik ere. Istorio erreal baten kontari nator, etxeko supazterretik.

Aremix –gure katua– gogoan!

Otsaila katuen hila da. Otsaila ere emakumeen hilabetea omen da. Hainbat lekutan “katail” izenarekin ezaguna. Otsailean urteko lehen jaien giro epela sumagai da: San Blas, Santa Ageda eta Inauteriak ospatu ditugu. Kaldereroak honezkerro ibiliak ditugu karrketan, besteak beste.

Beude jaiak. Etxeko katua dut gogoan egun. Hona nire etxeko supazterreko istorioa:

Aremix zuen izena. Orain lauzpabost urte Hendaiaiko hondartzan aurkitu genuen, bero sapa egin zuen uda horietako batean. Auto baten azpikoetan zegoen, txiki-txikia zen artean. Hondartzan aurkitu genuenez, “hareako katua” izen-datu genuen: *Aremix*.

Egia esan, ez genuen etxean katurik nahi. Semeak bai, orde. Ordurako zakur bat eskatua zuen, baita ezetza jasoa ere. Beno, zakurra baino lehen zaldi bat eskatu zuen. Ezinezkoaz jabetuta, eta zakurrik izango ez genuenez jabetuta ere, katuarekin konformatu zen. Aita eta ama ez zeuden katuarekin gelditzearekin arras kontent eta konbentzituak. Uda zen eta hilabete hartan amona etxean izaki, amonaren oniritzia jaso ondoren, etxeko maizter bilakatu zen *Aremix*.

Etxean baino kanpoaldean ohiarazi genuen. Berak, noski, etxe barruko txoko guztiak miatzen zituen aukera txikie-nan, eta zirt eta zart, hantxe aurkitzen genuen, goxo-goxo, zokoren batean kukututa. Ni nintzen zorrotzena: “Katua kanpoan!”. Aldiz, hasieran, onespren edota baiezpen gutxien eman zionak, amak, ardura gehiena eskainiko zion gerora.

Urtero, otsailean –eta udaberri eta udaldian ere bai– *Aremix*-en ausentziak nabaritu ditugu, pare bat egunez-edo hasieran. Inoiz ere, hiru egunetan ez zen azaldu gure aterbera. Alabaina, azkenean, beti itzuli zen. Inguruko etxeren batean sartu eta gatibu geratua zela pentsatzen genuen. Udaldian, bere katu lagunekin joan ote zen komentatzen genuen, txango joaten zela, alegia.

Urtarrilean, iragan berri den ekaitz garai horretan, joan zen



eta ez da itzuli. Otsaila zeto-rrela eta, katuen hilabetea zelako txango garaia hasi zuela pentsatu genuen berriz ere. Emea da, edo zen: *Aremix*.

Emea zelako antzuarazi genuen. Gure etxe ingurua edo etxeko aterbea katu samalda batez inguratua ez izateko antzuarazi ere. Albaitariak antzutu zuen zehatzago esanda. Zein anker-rrak gara *humano*-ok, ezta?

Aremix ez da itzuli. Itzuliko zen esperantza atxikitzen

genuen lehenengo astean. Goizean, seiak aldera, bera zen etxeko aterbeko atean lehena jotzen egunero. Lehenago, kontra-leihoak irekitzen miauka hasten zen, hazkurriaren eske. Bera zen gosaltzen lehena.

Hiru aste pasa dira eta sukaldeko atera hurbiltzean haren –ustezko– zaratek ernatzen naute. Ez da bera, nik hala iza-tea nahi badut ere. Haizea izaten da. Edo aldamenekoan katua. Hau bai katu alproja! Ohartu naiz, bai, nork jaten zuen *Aremix*-en bazka: *Mustafak*!

Alimaleko zarrastatuak giten zizkion *Mustafa* alenak *Aremix*-i.

Beno, *Aremix*, Anderrek “norbaitek lapurtu digu katua” esaten die lagunei. Ezer txarrik gertatu baino etxeren batean goxo-goxo zaudela pentsatu nahi du semeak. Guk ere bai.

Katuak zazpi bizi ditu. Ondo bizi, *Aremix*! Gogoan zaitu-gu.

P. S. Anak, IRUNEROkO arduradunak, *Aremix*-en argazki- ren bat ote dudan galdetu dit. Ez dut bat bera ere aurkitu. Agian sekula ez genion argazkirik egin ere. Seme-alabekin agortu zitzaigun argazkiekiko gogoia edo zaletasuna, non-bait.

MIKEL ASURMENDI

Liburu polemikoa ekarri dugu otsail honetan. Eleberri honek zer esan franko eman du literaturaren mintzalekuetan. Baliteke IRUNEROKo irakurleen artean gutxi batzuk baino ez izatea literaturaren jarraitzaileak. Ea izan daitezkeen apur horientzat taxuzko zerbait idazten dudan.

Bilbao-New York-Bilbao aire-bidaia ez nau ase

Kirmen Uribe poetaren lehen eleberria itxaron zuten literatur bazka zaleek. Eleberriaz *kritikariek* esan zezaketenaren aiduru egon dira ere –literatur mintzalekuetan– belarriak zabalik eta zoliak dituztenak; literaturaz bazkatzan naizen neroni ere barne.

Neronek, idazki inpresionistak marrazten dituen honek, tranpa egiten dut. Hots, gustuko bazkari buruzko lerroak baino ez ditut inprimatzen eskuarki. Literatur mentura zale kol-darra baino ez nauzue, hara.

Uribe poeta aipatu dut. Izan ere, Kirmen liburu bakarreko idazle izan dugu orain gutxi arte. Orain eleberrigile izateko urratsa eman du. Kirmen aipatu dut. Ez naiz bere laguna, lizentzia handiegia hartu ote dut. Alabaina, Kirmen eleberrigile izan aitzin pertsonaia publikoa bihurtu zuten –edo berak utzi du bere burua bihurtzen– literaturaren mintzalekuetan bazka bilatzen dutenak. Malo!

Bitartean heldu eskutik poesia liburua literatur garai honetako ikurra bihurtu zen/da. Laster hamarkada bat beteko du sortu zuela garai honetako poesien ahotsa ekarri zuen egileak. Poeta bezala, besterik idatzi ez izana –agian idatzi du, baina ez du argitaratu–, Kirmen Uribe poeta osatu gabea bezala gelditu izana begitandu zait. Ahotsa aurkitu zuen, baina hitza falta balitzaio legez.

Bien bitartean, eta handik hamar urtera, *Bilbao-New York-Bilbao* eleberriarekin porturatu zaigu. Liburuaren azalean ageri den “Dos amigos” itsasontziak, alabaina, ez du itsas porturik aurkitu. Aitzitik, airetiko portuetan ibili eta galdu da. Galdu da ontzia, galdu da kapitaina eta galdu da tripulazioa. Edo nik neronek ez dut itsasontzia aurkitu behintzat.

“Arrainek eta zuhaitzek elkarren antza dute” hasi da narrazten idazle kapitaina. Hor dago liburuaren haria eta tonua nik uste. Baina poetak ez du hauteman narraztailearen ahotsa. Narraztaileak, poetak ez bezala, ahotsaren eta hariaren



Liburua: **Bilbao-New York-Bilbao.**
Egilea: Kirmen Uribe.
Argitaletxea: Elkar.

jabe izateaz gain, gidoia landu behar baitu eta narrazioa ehundu.

Eleberriarenak egin du –ez Kirmen Uriberen honek–. Hala diote literatur mintzalekuetan bazkatzen direnek, edo batzuek behintzat. Eta Uriberenak arrazioia eman die neurri batean. Eleberri honen ahotsa poetaren ahotsa da, baina ez du balio nobela gauzatzeko. Eleberriaren narrazioa egunerokoetan entzuten eta izkiriatzen diren hitzez ehundu du egileak.

Eguneroko hitzak mugatuak dira, oso mugatuak errealitatea kontatzeko. Fikzioa omen da errealitatera eta egiara gehien hurbiltzen dena. Kirmen Uribek kontatu dizkigunak benetakoak dira, baina nork kontatu dizkigu? Pertsonak edota –literatur mintzaleku batzuetan– gura duten pertsonaia?

Kirmen Uribek, eleberrigile bilakatu ostean, idatzi izan balu *Bilbao-New York-Bilbao*, balekoa litzateke. Eta balekoa da, balekoa Kirmen Uribe pertsonaia ezagutu nahi duenentzat.

Nik, ele berriren gosez, ezagutu nahi dudana eleberrigile gerra osteko Ondarroako portua kontatuko diguna da: Franco ankerra hil zorian zegoela, Uriberen arreba gaixoaren gelaraino sartu ziren “sardinaz”rek jaurti zituzten irainak deskribatuko dizkidana. Edota herri honen “askatzai-leek” Ertzaintzaren koartelaren aurkako erasoaren ostean, *muturbeltzek* eta herritarrek oro bat sentitu zuten laborria deskribatuko didana. Hots, itsas deserri honi buruzko historia nobelatua eskainiko didana.

Nobelako Foister Wallace-ren hitzak ditut gogoan: “Literatura onak korapilo bat sortzen dizu urdailean”. *Bilbao-New York-Bilbao* aire-bidaia ez nau ase. Bitartean, Kirmen poetaren bidaia ez dadila amaitu eta Uribe eleberrigile jaio-tzea desiratzen diot idazleari.

MIKEL ASURMENDI

Erakusketa



Otsailak 6 - Martxoak 1.

Amaia KZn Calahorra Hiria XIII. Lehiaketa Nazionalera aurkeztu diren margolanen aukeraketa bat ikusgai dago.

Musika

Otsailak 15

Larreandin, 9:00etatik aurrera, Txistularien Diana.

Otsailak 21

23:00etan, Tunk aretoan, kontzertua. Vomito + artista gonbidatua.

Otsailak 22

Antzaran eta Pinudi auzoetan, 9:00etatik aurrera, Txistularien Diana.



Otsailak 28

Amaia KZn, 20:00etan, HARIOTS eta LANTZ taldeen kontzertua.

Hariots eta Lantz: folk musika ulertzeko bi modu ezberdin bezain erakargarri. Lantz eskarmentu handiko musikariz osatua dago eta euskal musika tradizionalaren nahiz garai-kidearen trataera berezia eskaintzen dute.

Hariotsen eskutik munduko folk musiketan zehar bidaia egiteko aukera eskaintzen da. Besteak beste, klezmer musika –Europa ekialdeko judutarrena–, tangoa, zel-tena eta, jakina, Euskal Herrikoa.

Ikus-entzunezkoa

Otsailak 26

Amaia KZn, 19:30ean, *Zure Abenturaren Bila* programaren



Antzerkia euskaraz

Tormesko Lazaro txikia



Otsailak 15

Amaia KZn, 17:00etan, antzerkia familia guztiarentzat. Malas pulgas taldeak *Tormesko Lazaro Txikia* lana euskaraz antzeztuko du.

Ikust-Alaia Liburutegiko ekintzak

Irakurketa kluba

Otsailaren 24an, 19:00etan, Jose Antonio Ruiz-Domenec-en *La ambición del amor* lana.

Ipuin kontalariak

Otsailaren 25ean, 17:30ean, haur-errentzako ipuin kontalariak gaztelaniaz.

Otsailaren 26an, 19:30ean, helduentzako ipuin kontalariak.

Mintegia

Otsailaren 26an, 17:00etan, *Los Eclécticos*, Carlos de Agustinek zuzendua.

Poesia tertuliak

Otsailaren 23an, 17:30etan, Jesus Rodriguezen eskutik. Egilea: J. Riechman.

Libroforum tailerra

Otsailaren 23an, 19:00etan, Carmen Martin Gaitere-*n Nubosidad variable*. Mertxe Trantxek zuzendua.

barruan, *Iberiar penintsula: bidaia oinez Alikanteko eta Valentziako kostaldean zehar* izenburuko ikusentzunezkoa proiektatuko da, gaztelaniaz. Lanaren egilea den Javier Aldabek aurkeztuko du.

2006an hasitako Iberiar penintsularen itzulia oinez egiteko proiektuari jarraituz, 2008ko udan egindako bidaiaz gozatzeko aukera eskaintzen digu Javierrek.

Erlaitz Mendi Elkarte

Otsailean zehar

M.A Lujanbioren argazki erakusketak. "Kostaldekoko bidea: Jaizkibelgo itsaslabarrak".

Inauteriak Irunen

Kartel erakusketak

Otsailak 13 - martxoak 1

Amaia KZ Inauterietako Kartel Lehiaketara aurkeztu diren lanen hautaketa bat erakusgai.

Kaldereroen konpartsa

Otsailak 14

19:00etan Kaldereroen konpartsa Txanaleta plazatik abiatuko da.

Iñudeak eta artzaiak

Otsailak 15

12:00etan Iñude eta artzaien konpartsa Pio XII plazatik irtengo da. San Juan Harria plazan dantza saioa eskainiko dute Musika Udal Fundazioaren Orkestrak lagunduta.

Ostegun gizona

Otsailaren 19an, 19:00etan, Txanaleta plazatik Zantantzarren konpartsa irtengo da. 19:30ean

Zantantzar San Juan Harria plazan jarriko da.

Ostiral argala

Otsailaren 20an, 20:00etan Antzaran plazatik Zantantzarren konpartsa abiatuko da.

Inauteri larunbata

Otsailaren 21ean, 17:30ean Haurren Desfilea Letxunborro hiribidetik aterako da. 21:30ean, DISKOFESTA San Juan Harria plazan.

Inauteri igandea

Otsailaren 22an, 17:30ean, Inauterietako Desfile Handia aterako da.


Otsailak 23

11.00etatik aurrera haurrentzako gaztelu puzgarriak Zabaltza plazan.

Otsailak 24

19.00etan, Zabaltza plazan, dantzagarriak. 19.30ean, *Sardinaren lurperatzea* jarraigoa Zabaltza plazatik abiatuko da.





Bekak



ENTRE ESTUDIANTES aldizkaria GIBn irakur dezakezu.

- **UNIBERTSITATEKO MASTER IKASKETEN KOSTUA FINANTZATZEKO MAILEGUAK.** Deialdigilea: Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa. Epea: 2009-7-31.

www.micinn.es

- **AMERIKAKO ESTATU BATUETAN GRADUONDOKO IKASKETAK EGITE-**

KO BEKAK. Deialdigilea: Fulbright Batzordea. Epea: 2009-3-6.

www.fulbright.es

- **LA CAIXA BEKAK 2009.** La Caixa Fundazioak 261 beka emango ditu Espainian, AEBetan, Alemanian, Frantzia, Britainia Handian, Kanadan, Txinan eta Indian ikasketak egiteko. Ez galdu aukera!

obrasocial.lacaixa.es/becas

Lehiaketak



- **FANTASIAZKO IPUIN LABURREN LEHIAKETA.** Deialdigilea: UPV-EHU. Oinarriak: Nahi duen orok parte har dezake. Lanak eus-

karaz nahiz gaztelaniaz idatzi daitezke, gehienez 10 orrikoak. Epea: 2009-4-24.

www.araba.ehu.es

- **LASARTE-ORIAKO MUSIKA-MAKETEN LEHIAKETA.** Oinarriak: Edozein musika estilotako bakarlariek nahiz taldeek parte har dezake baldin eta formatu komertzialean argitaraturik ez badute. Hiru kantu aurkeztea ezinbestekoa da, MP3 formatuan. Epea: 2009-3-31. Maketak posta elektronikoz bidaliko dira: maketak@lasarte-oria.org

- **ZINEMA ETA ANIMAZIOKO FILM LABURREN NONTZEFILMAK LEHIAKETA.** Deialdigilea: Nontzeberri Kultura Ataria. Oinarriak: Nahi duen orok parte har dezake. Lanak originalak izan behar dute eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera eginak. Epea: 2009-2-28. Izen ematea: on line.

www.nontzefilmak.com

Ikastaroak



- **EHU UNIBERTSITATEAK OCW EKIMENAREKIN BAT EGIN DU.** Helburua Unibertsitateko komunitateak sortutako eta irakatsitako edukiak gizartearen eskuetan jartzea da. ocw.ehu.es/

- **BOLUNTARIO-LANARI BURUZKO OINARRIZKO IKASTAROA.** Antolatzailea: Hezkide eskola. Iraupena: 12 ordu. Euskaraz. Lekua: Donostia.

Euskara ikaslearen txartela

Irungo Udaleko Euskara Arloak *Euskara Ikaslearen Txartela* sortu du. Txarteldunei euskararekin harremana duten hainbat ekitalditako sarreretan beharpena egingo zaie. Halaber, Argia astekaria, Berria egunkaria eta Luma eta Gaztezulo aldizkariak merkeago izango



dituzte baldin eta harpidetza egiten badute.

gazte informazioa



gazte informazioa





Loka aldizkariaren azken zenbakia GIBn irakur dezakezu.

Epea: 2009-3-29.
hezkide@hezkide.org

- IRUNGO HIZKUNTZA ESKOLA.
 Matrikula librea 2009. Epea:
 Otsailak 26 - martxoak18.
e.o.i.irun@euskalnet.net



- EUROPAR PROGRAMAK.
 Talde bat sortu, gustatzen zai-
 zuenari buruz proiektu bat aur-
 keztu eta, onartzen bada,

beste europar gazteekin goza
 ezazu! **Baldintzak:** 13 eta 30
 urte bitartekoa izatea.
www.gazteukera.net

- GAZTEKUTXAREKIN ELURRETARA.
 Estaziorik onenak preziorik
 onenetan! www.irun.org/igazte



- LANTXO BATEN BILA?
www.irun.org/igazte



-- IRUNEN FILM LABURRA GRABA-
 TZEKO NESKAK ETA MUTILAK BEHAR
 DITUGU. Tel: 648 183584.

- PRAKTIKAK EGITEKO DENDA
 BATEN BILA nabilen
 Merkataritza ikasle frantziarra
 naiz.
lilouromero@hotmail.com

- OSASUN-PUNTTUA. Sexu-trans-
 misiozko gaixotasunen inguru-
 ko aholkularitza. 943-006464.

Hitzaldia: Etxebizitza erostea

Irungo Udalak *Kontsumo Eraginkorraren Eskolaren* barruan zenbait hitzaldi antolatu ditu. Helburua hiritarren hezkuntza bultzatzea da, produktuen eta zerbitzuen erabileran sor daitezkeen arazoei aurre hartzeko.

Gaia: ETXEBIZITZA EROSTEA
Martxoak 25
Lekua: Oiasso Museoa. **Ordua:** 18:00etan
 Erosketa, librea edo Babes Ofizialekoa. Eskaintza, informazioa, kontratuak. Hipoteka mailegua. Alokairua, kontratua eta iraupena. Alokairu babestua, Alokabide. Irungo Babes Ofizialeko Etxeak.



harpidetza

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanei buruz adi egon nahi baduzu, eska iezaiguzu, eta astero bidaliko dizugu informazioa zure etxera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZENAK.

HELBIDEA.

P.K...... **HERRIA**.....

POSTA ELEKTRONIKOA.....

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pidenoslo y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.

Gazte Informazio Bulegoa- Oficina de Información Juvenil
infojuvenil@irun.org
 Tel: 943 505 444
 943 505 440



Gipuzkoa Telebista Txingudiren programazioa

Astelehena

15:30-17:30
Txingudialdia
 (Eskualdeko magazinen errepikapena)
 17:30-19:30 21:00
Tiempo Real.
 (Errealari buruzko saioa).

Asteartea

15:30-17:30
Tiempo Real
 (Errepikapena)
 17:30-19:30
Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak.
 21:00-22:00
Txingudialdia.
 Eskualdeko magazina.
 22:00-23:00
Tiempo Añadido
 (Bidasaldeko kirol saioa)

Asteazkena

15:30-17:30
Txingudialdia
 (Errepikapena)
 17:30-19:30
Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak.
 21:00-23:00 **Palabras y música.**
 Elkarrizketak eta musika zuzenean Manuel Frailek aurkeztuta.

Osteguna

15:30-17:30
Palabras y música
 (Errepikapena)
 17:30-19:30
Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak.
 21:00-23:00
Txingudialdia.
 Eskualdeko magazina.

Ostirala

15:30-17:30
Gipuzkoaldia
 (Errepikapena)
 17:30-19:30
Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak.
 21:00-22:00
Txingudialdia.
 Eskualdeko magazina.
 22:00-22:30
Tal como somos.
 Iraganari buruzko elkarrizketa nostalgikoak.

Larunbata

7:30-9:30 Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak.

Igandea

7:30-9:30 Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak.



Zámnia © Juan Carlos Domínguez

MILAKA PERTSONAK BEHAR DUTE PREMIAZKO LAGUNTZA BIZITZEKO

Zure laguntzarekin, beharrezkoa duten laguntza medikoa eman ahal izango diegu.

Urtean 10€ emanda, kirurgia ekipo osoa bidali ahal izango dugu gerran dagoen herrialde batera, edo 400 umeri meningitisaren kontrako txertoa jarri.

Egin zaitetz Mugarik Gabeko Medikuen kide

Deitu 902 15 15 07 telefonora

www.msf.es



Biltegi eta bulegoak:

Txirrita Maleo 4 - 20100 Errenteria

Dendak:

San Francisco, 15 - 20002 Donostia

San Francisco, 24 - 20002 Donostia

Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia

Isabel II, 15 - 20011 Donostia

Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria

Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun



Erka Osagai Elektrikoak S.L.U.
c/ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industrial eta etxeko instalazio elektrikoaren biltegia.
- Lampara erakusketa.